

## ADINEKO ERRETIRATUEN ELKARTEEN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko maiatzaren 15ean Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### JUSTIFIKAZIOA

Donostia Lagunkoia Udalak bultzatutako plan bat da, eta bi asmo nagusi ditu: Donostiako adinduen errealitatea agerraraztea eta balioestea, batetik, eta pertsona hauek hiriko bizitzan bete-betean parte har dezaten aukerak sustatzea, bestetik.

Plan honek adinduak gizarte bizitzan eta hiriko dinamiketan presente egotea eta haien parte hartzea sustatzen du. Bere barnean biltzen ditu hainbat proiektu eta jarduera, helburu orokortzat adinduen bizi kalitatea hobetzea dutenak, adinduek herritar bezala duten ahalmena baliatuz.

Udal Gobernuak 2017rako konpromisoen zerrenda aurkeztu du. Horien artean, 27. neurrian, adineko erretiratuen elkarteek erabiltzen dituzten lokalak hobetzea jasotzen da.

Horren harira, 2004an pertsona jubilatuentzako lokalen lehehengo zaharberritze plana martxan jarri zen, 2.500.000 euroko aurrekontuarekin. Plan horren bidez hainbat lokal (Erdialde, Aieteko Topalekua, Larratxo, Gure Egunsentia Amara Berrin, Gure Babesa Loiolan, Lurrargi Martutenen, Bidebietako Guardaplata eta Altzako Casa Nao) berritu ziren, irisgarritasun arazoak konpontzeko saiakera egin zen eta sukalde zerbitzuak jarri ziren.

2014an pertsona jubilatuentzako 22 lokalen azterketa bat egitea erabaki zuen Udal Gobernuak, lokal askok ez zituztelako betetzen segurtasun eta gutxieneko irisgarritasun baldintzak. Azterketa honen ondorioz hainbat lehentasun ezarri ziren eta lokal bakoitzak zein interbentzio mota behar zuen adierazi zen taldeka:

- 1.taldea: mantenimendu arazoak dituzten lokalak (zazpi lokal).
- 2.taldea: 2004ean konpondu ziren lokalak, baina interbentzio berri bat behar dutenak (bi lokal).
- 3.taldea: obra handiak behar dituzten lokalak (lau lokal).
- 4.taldea: konponketarik izan ez dituzten lokalak eta kasu larriak direnak (hiru lokal).
- 5.taldea: Udalarenak ez diren lokalak, baina arazoak dituztenak (lau lokal).
- 6.taldea: Udalarenak ez diren lokalak eta egoera egokian daudenak (2 lokal).

Teknikarien iritziz, kasu larrienak 4. taldeko Intxaurrendoko Aitoneren-etxea, erdiguneko Ja-torra eta Herrerako Aterpea lokalek behar zituzten interbentzioak ziren.

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

Horren ondorioz, aurreko legegintzaldian, Udal-Gobernuak 300.000 euroko aurrekontua adostu zuen Aiton-en-etekeko irisgarritasun arazoak konpontzeko, alboko lokal baten erosketa planteatuz. Lokal hori erabiliz, irisgarritasuna bermatzeko proiektu bat proposatu zen. Ondoren, 2015eko abuztuaren 11ko Gobernu Batzordean, bi lokal erostea onartu zen, Intxaurren Pasealekuan eta Txaparrenen (245.000 euroren truke).

2015eko iraileko batzordeetan zinegotzi-ordezkeriak adierazi zigun konponketak bi faseetan egingo zirela eta 2016rako obra bukatuta egongo zela.

Jatorra elkartaren kasuan, lokalaren aldaketa proposatu zen (Morlansera), segurtasun arazo larriak zirela-eta, baina bertako jubilatuek ezezkoa eman zuten elkarterako oso garrantzitsua baita erdigunean egotea. Hori ikusita, beste irteera bat proposatzeko beharra planteatu zitzaion Gizarte-ekintzako departamenduari. 2016ko ekaineko batzordeetan zinegotzi-ordezkeriak esan zigun udaltzainen moto tailerra libre gelditu dela eta bertatik irisgarritasuna lortzeko eta ebakuazioa egin ahal izateko proiektu bat disenaitzen ari zirela. Hala ere, gaur gaurkoz ez dugu inongo berririk honen inguruan.

Bestetik, 2016ko maiatzaren 9ko Gobernu Batzordean, 3. taldean dagoen José Manuel Varona elkarteko lokalaren konponketa egiteko, Udal-gobernuak lokal berri baten erosketa adostu zuen. Zinegotzi-ordezkeriak adierazi zigun lokalaren erosketa sinatu zutela iazko uztailaren 27an, eta, aurtengo apirilean, prentsan ikusi dugu lokala handitu eta berriutu dutela.

Gauzak horrela, faltan botzatzen dugu Udal Gobernuaren plan bat eta kronograma zehatz bat, legegintzaldian zehar egin nahi dituzten konponketak lehenetsiz eta zerrendatuz. Izan ere, teknikariek 2014an lehenetsunak markatu zituzten lokalak 6 taldeetan banatuz, eta garrantzitsua iruditzen zaigu Udal Gobernuak argi adieraztea zein lokal konponduko dituen eta zein ordenatan.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari plan bat egin dezala 2017-2018 eta 2018-2019 ikasturteetan konponduko edo hobetuko dituen adineko erretiratuen lokalen zerrenda zehaztuz.
2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari lokal horiek hobetzeko beharrezkoa den dirua aurreikus dezala urte bakoitzeko aurrekontuetan.

Donostian, 2017ko maiatzaren 19an

Olaia Duarte López  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**